

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

(EGEFEN kudeaketarako Eusko Jaurlaritzaren Funtzio eta Prozeduren Eskuliburuan jasota dagoen edukiaren arabera)

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 23a.

Ekonomia eta Plangintza zuzendaritzak (hemendik aurrera EPZ) bere konpromisoa adierazi nahi du arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandarrik zorrotzenekin eta bere atxikimendua integritate, objektibotasun eta zintzotasun printzipioekin; horrela, berarekin harremana izaten duen eragile orok hauteman dezan bere jarduera ustelkeriaren edozein formarekiko eta iruzurrarekiko kontrajarria dela. Bere zuzendaritza taldeko kide guztiek konpromiso hori bere gain hartzen dute eta partekatzen dute.

Bestalde, EPZko langile publikoek, beste zeregin batzuen artean, “interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua.” (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. 52. artikulua).

Borondate hori indartu egiten da honako honen bitartez: [67/2016 EBAZPENA](#), azaroaren 22koa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena. Ebazpen honen bidez, Gobernu Kontseiluak hartutako Erabakia argitaratzen da, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta bere sektore publikoko [kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen](#) testu bategina onartzen baita eta kode hori beste aurreikuspen batzuk gehitzen baitzaizkio. EHAko 2016/11/28ko 226 zenbakian argitaratua.

Politika horren helburua organizazioan jarduera iruzurti orotatik etsiarazteko eta bere prebentzioa eta detektatzea errazteko kultura bat bultzatzea da. Kasu horien kudeaketarako prozedura efektiboak garatzea bultzatuta. Horrela, beste neurri batzuen artean, Eusko Jaurlaritzak badauka interes-gatazka egoerak deklaratzeko prozedura bat.

EPZk, horretarako, arriskuen ebaluaziorako, iruzurraren aurkako politika periodikoki eguneratzeko eta emaitzen jarraipena egiteko talde bat du. Horrez gain, prozesuen kudeatzaile eta arduradunen lankidetzak badauka ere; ziurtatzeko beraien ardurapeko arloetan

egokia den barne-kontrol bat dagoela eta, hala balegokio, neurri zuzentzaileen inplementaziorako beharrezko diligentsia.

EPZk iruzurraren aurka borrokatzeko neurri eraginkorrak eta proportzionatuak abian jarri ditu, arteragoko aldietan lortutako esperientzian eta helburu horrekin egin berri den iruzurraren arrisku ebaluazioan oinarrituta.

Horretaz gainera, detektatu litezkeen irregulartasunak edo iruzur susmoak Iruzurraren aurkako Europako Bulegoan (OLAF) salatzeko prozedurak ditu. Txosten guztiak konfidentzialtasun zorrotzenarekin tratatuko dira eta gai hau arautzen duten arauen arabera.

Azken batean, EPZk iruzurrarekiko eta ustelkeriarekiko zero tolerantziadun politika du eta kontrol sistema sendoa ezarrita du, ahal den neurrian, iruzur ekintzak detektatu eta prebenitzeko bereziki diseinatutakoa, eta, gertatuz gero, bere eragina zuzentzeko. Politika horrek eta prozedura eta beharrezko estrategia guztiek irailaren 19ko (26ko BOE) 802/2014 Errege Dekretuak sortutako Iruzurraren aurkako Koordinazioko Zerbitzu Nazionalaren babesa dute. Zerbitzu horrekin batera EPZk politika hau etengabe berrikusi eta eguneratzen du.

Jordi Campás Velasco
Ekonomia eta Plangintza zuzendaria